

Ttiki-ttaka

euskaldunon aldizkaria, 34. Zk.



aunkibidea

HERRIZ HERRI

Editoriala	4
Biasteri	5
Bilar	7
Iekora	8
Lantziego	9
Lapuebla de Labarca	10
Navaridas	11
Oion	12
Paganos	13
Samaniego	14
Viana	16
Zieko	18

ERREPORTAJEAK

Xamarren hitzaldia, txikia handi denean	19
San Martin, txikia izan arren, handiena	21
EUSKARALDIA Arabako Errioxan eta Uianan	23
Arabako Errioxa Bizirik!	25
Arabako Errioxako Ingurumen teknikaria	26
Topagunea ginen, Taupa gara	27

ELKARRIZKETAK

Itxaso Compañón Arrieta	28
Maitane Larrayoz Martínez	30

DENBORAPASAK

Denborapasak	34
--------------	----

NON GOGOA, HAN ZANGOA

Non gogoia, han zangoa	37
------------------------	----

Uda ate joka dator, eta **Ttiki-Ttakako** aldizkaria ere harekin batera hemen dago ale berri batekin.

Aurten ere orri hauek betetzeko lana denon artean egin dugu, hau da, elkarlanean, auzolanean, elkarlanik gabe ezinezkoa izango litzatekeelako aldizkaria argitaratzea.

Lerro hauek irakurtzen dituzuenerako **EUSKARALDIA** pasata egongo da; laster etorriko dira balorazioa, zenbakiak, eragina... Ziurrenez, datu orokor horien aurretik, nork bere balorazioak eginak izango ditu, baina Arabako Errioxan euskararen normalizazioan aurrera goaz? Geldirik gaude? Atzerantz goaz?

Aurrera goaz, gure eskualdean euskaraz dakiten pertsonen kopurua ikaragarri igo baita eta euskaldun sentitzen diren pertsonen kopuruak ere gora egin baitu. Hezkuntza sektorean bereziki, euskara ia normalizatuta dago hein handi batean. Aisialdiko arlo batzuetan ere euskararen presentziak gora egin du.

Geldirik gaude, administrazioan bereziki gai honetan ez baita aurrerakuntza nabarmenik ikusten. Noizko udaletako plenoak euskaraz, kuadrillako bilerak euskaraz, leihatilan dagoenarekin euskaraz egiteko aukera? Bestalde, ardo eta turismoan non dago euskara, hots, zer leku hartzen du? Ingelesak, frantsesak, alemanak garrantzi handiagoa dute?

Atzerantz goaz, zeren euskaldunon hizkuntza eskubideak Arabako Errioxan arlo askotan ez dira betetzen eta egoera anormala normalizatuta dago. Gainera, eskaera edo kexa jarriz gero, ziztu bizian etiketatua izateko aukera izango duzu: “erradikala, intolerantea...”, “Zer nahi duzu mediku ona edo euskaraz dakien medikua?” Eta antzeko galderekin. *Zaharrak berri*, esango du norbaitek, baina, ez, kontuan izanik egungo euskaldun kopurua, atzerantz egitea da.

Etorkizunari begira ez badugu lortzen euskara gure, norbere, elementua egitea, zaila izango dugu normalizazioan aurrera egitea; tituluak lortzeko edo oposizioak ateratzeko baliabide garrantzitsua izango da, baina behar ez duen pertsonarentzat zer izango da euskara? Euskara jakiteak bakarrik ez gaitu euskaldun egingo; gure herri, kultura eta izaeraren ezinbesteko elementutzat hartzen dugunean, aldiz, bai. Baina, zoritxarrez, aurrekoa lortzeko denon lana zein ardua ezinbestekoa da, etxetik hasi, ikastetxeetan jarraituz eta kalean osatuz. Euskara ez dadila opariak dotore jartzeko zelofana bezalakoa izan: euskara oparia izan behar da.

Goza ezazu, bada, euskara gure bihotz eta ahoetara eramateko lanean ari den Ttiki-ttaka elkarteak argitaratutako aldizkariaren 34. alearekin.



biasteri.....

Biasteriko Zolaketa Lanak

Egunotan Biasteriko kaleetan bazabiltzate, zolaketa lanak ikusiko dituzue. Kontuz mugikorrari begira zaudetenok; adi lurzoroari, oztopo ugari dago-eta!

Kaleetako obrak deserosoak izaten dira beti (zikinkeria, zarata, hautsa, oztopoak...), baina gero denok gasa, fibra optikoa eta abar nahi izaten ditugu. Ulertu beharra daukagu, eta pazientzia pixka bat eduki, izan ere, ohartu gabe berehalako batean amaituko dira.

Zehazki herriko kale hauek daude obretan: Kale Nagusia, Paganos, Santa Garazi kaleko zeharbidea, Samaniego eta Eskide. Biasteriko kale eta zerbitzu berritzearen planaren laugarren fasea da haxe.

Zenbait hilabete igaro behar dira horrelako lan erraldoia tramitatzeko. Astiro, baina etengabe ari dira obretan; gainera, bosgarren eta azken fasea ere prest daude adjudikatzeko (herriaren goiko alde). Dena ondo badoa, azkeneko bi faseak segituan egingo dira, eta herria guztiz berriturik geratuko da. Etxebizitza guztiek gasa eta bestelako hobekuntzak izango dituzte azkenik. Bai ondo! Bazen garaia!

Segurutzat ondoko galdera egin diozue inoiz zuen buruari: “Zenbat kostatzen da horrelako obra handiak egitea?”. Udalak Arabako Foru Aldundiaren “plan forala” deitutakoari dirulaguntza eskatu zion. Bi urtean behin ateratzen da dirulaguntza, eta 2021ekoa laugarren fase hau burutzeko erabili da; 2023koa, berriz, bosgarren eta azkeneko faseak gauzatzeko. Guztira **3.578.724€**; Aldundiak % 80 jarri du eta Biasteriko udalak gainerako % 20. Zer eskatuko dion udalak aurtengo plan foralari? Momentuz ez dago jakiterik.

Biasterin gauzatzen ari diren obrak berezitasun handikoak dira hiru arrazoiengatik:

- **Biasteriko kaleak oso estuak dira, eta pixkanaka-pixkanaka konpondu behar dira: bertan jendea bizi da, komertzioak egoten dira... Beti utzi behar dira pasabideak.**
- **Kontu handiz egin behar dira obrak, izan ere, herriaren lurrazpia kobazuloz josita dago, horregatik, lehenik eta behin horiek sendotu behar dira.**
- **Antzinako aztarnak azaltzen dira nonahi (oso ohikoa gurean), eta horiek ongi aztertu behar dira. Aztarnok egundoko garrantzia dute geure iragana ezagutzeko.**

Azken arrazoi hori dela eta, **Pakita Sáenz de Urturi** arkeologo arabarra eta bere kideak egunero ikusten ditugu obrak ikuskatzen. Beren zeregina aztarna horiek bilatzea da eta ondo gordetzea, gerora ikertu ahal izateko.

Pakitak dioenez, aztarna ugari bezain interesgarri azaltzen ari dira, aurreko faseetan aurkitutakoen antzekoak: **La Hoya herrixkaren** garaikoak, 2.000 eta 2.300 urte ingurukoak, alegia.



Orain arte zenbait umeren hilobiak, zeltiberiarren garaiko etxola batzuen harrizko oinaldeak eta bi garaitako zeramika puxka ugari (zeltiberiar kulturakoak eta erromatarrak). Bi kasutan bertakoek (**beroniarrek**) egindakoak Pakitaren aburuz.

Obrak gogaikarriak dira, bai horixe, baina Biasterik erosotasun eta egundoko hobekuntzak jasoko ditu, zalantzarik gabe. Gainera, gure antzinako historia ezagutzen ari gara, eta horrek berebiziko garrantzia du biasteritarrontzat.

Tira, esaera zaharrak dioten moduan: **“Ez da gaitzik, onik ez dakarrenik”**

Tfiki-tfaka 2025

iruditan



bilar.....

Musika Maitatu, Sionismoa Gorrotatu



Zoritxarrez, bigarren urtez jarraian, Bilarren bilduko gara Palestinar herriari babesa emateko asmoz. Basakeriatik ihes egin ezin izan duten horiek guztiak gogora ekarri nahi ditugu, eraildakoak omendu eta borrokan dirautenei gure indarra bidali. Era berean, bihotza erdibiturik eta etsipena gugan nagusitzen den garai hauetan, mespretxurik handiena adierazi nahi diegu Israelen lagunei; ahoa hitz faltsuz betetzen duten gobernuei – genozidekin arma salerosketan diharduten bitartean– edota hiltzaileekin hartu-eman ekonomiko zein diplomatikoak dituzten horiei. **ASKI DA!** Estatu sionistarekin harreman oro eten behar dugu, genozidioaren konplize bilakatu ez gaitezen. **Maiatzaren 31n**, elkartasun doinua, palestinar herriaren erresistentziaren hauspoa izatea nahiko genuke. Bonbek eta gose larriak eraginda hiltzen ari diren horien oihua eta beraien lurretatik bota nahi dituztenentzako

lubakia. Borroka honetan zeu ere behar zaitugu. Animatu eta etorri! Eutsi gogor neba-arreba palestinarrok! zuekin gaude!

ITSASOTIK ERREKARA,
PALESTINA ASKATU!

iekora.....

Dantza Taldea Martxan Berriz Ere



Oso berri ona jaso dugu lekoran azken urte honetan. Zorionekoak gu ekorrarrok: herriko dantza taldea martxan da berriz ere.

Iekorako dantza taldea 8oko hamarkadan sortu zen, nagusiki aspaldi ia galduta zegoen **katearen dantza** berreskuratzeko asmoz. Dantza hau **Bertzijanako Ama Birjinari** dantzatzen zaio Santo Domingo egunean basilizatik herrirako bidean, eta baita **Esker Oneko Jaietan** herritik basilizarainoko bidean zehar ere. Bidean lau aldiz dantzatzen da Ama Birjinari ohore eginez.

Bazen hamarkada luzea herriko dantza taldea geldirik zegoela, eta ez zuela entsegurik egiten. **Ama Birjinaren Egunean** baino ez zen dantzatzen, eta dantzariak lortzeko ere komeriak izaten ziren. Baina, zorionez, joan zen udatik hona gauzak aldatu egin dira. Hogei bat haur eta gazte hasi dira entseatzen, eta

dagoeneko hainbat ekitalditan hartu dute parte; besteak beste, *En Tol Sarmientok* BEC aretoan eskainitako kontzertuetan eta Bilarren ospatutako *Arabako Errioxako Dantzari Egunean*.

Berpizte honen "errudun" nagusia **Ariadna** izan da. Herriko gazte honek bere gain hartu du dantza taldea berpizteko lan zama guztia. Haren lan nekezari esker, lortu da proiektu hau berriz ere martxan jartzea. Eskerrik asko, beraz, **Ariadnari**, eta aholkulari eta laguntzaile fidelak dituen **Oiongo Urtziri** eta **Leireri** haien lan eskergagatik.





Lantziego Ikastola eskola publikoan harremani garrantzi handia ematen diegu. Eskolako atea zabaldu eta familientzat interesgarriak diren gaien inguruan modu informalean elkartzeko aukera paregabea da **kafe tertulia** urtariletik aurrera egiten ari garena.

Kafe tertulia edo **guraso eskola** ere deitzen diogu. Hauetan, gurasoen parte hartzea bultzatu nahi dugu. Modu honetan, beraien kezkak, ardurak, iradokizunak eta zalantzak argitzeko aukera dago. Familientzako gai interesgarriak ezagutu eta horien inguruko adituak ekarri ditugu. Orain arte egindakoak ondokoak izan dira:

- Herriko mediku eta erizainarekin, **Iratxe Arteta** eta **Leticia Miguelekin**, gaixotasun arrunten jarraibideak.
- **Noelia Moreno** psikologoarekin hainbat saio izan ditugu: arauak, mugak, frustazioarekiko tolerantzia...
- Heziketa digitalaren harira **Julen Linazasororekin** "Toma el control".

Oso momentu politak eta bereziak izan ditugu kafea hartuz, gai hauen inguruan hitz eginez eta hausnartuz. Adituen esanak entzunda ezagutza zabaldu dugula esan daiteke, ezagutza teorikoa, baita zalantzak argitu eta kezkak partekatu ere. Bestetik, familia eta eskolaren artean sortu den ezagutza azpimarratu nahi dugu, elkar ezagutzearena, hain zuzen ere.

Horrelako momentuek sartzeko aukera ere eman digute. Azken finean, gurasoengana hurbiltzeko ahalegina egin dugu, eta familien parte hartzea ikusita, hurrengo ikasturtean ere jarraipena eman nahiko genieke saio hauei.

Lapuebla de Labarca.....

Aterpetxea eta Aparkaleku Berria



Inaziotar Bidea Euskal Herriko **Azpeitia** udalerrria eta Kataluniako **Manresa** udalerrria lotzen dituen bidea da. 1522an San Ignazio zaldun zela egin omen zuen ibilbidea egiten du. Loiolako Santutegitik abiatu eta Manresako San Ignazioren leizean amaitzen da, tartean, Montserrateko monasteriotik igarota.

Ibilbideak **675** kilometro inguru ditu, eta **30** egun inguru behar dira osatzeko; bidean **5** autonomia-erkidego zeharkatu behar dira.

Bide luze horretan, geure herria ere zeharkatzen du; hori dela eta, udalak herrian zegoen *Ermandadeko* etxea egokitu eta aterpetxe bilakatzeko lanak hasi zituen. 6 laguntzako lotokia prestatu dute. Horrez gain, sukaldea eta komuna ere badaude. Bertan gaua igarotzeko, udaletxeko **945 607 051** telefonora deitu behar da aurretiaz; ordainketa

egiteko mugikorraren bidez egin daiteke aplikazio bat erabiliz.

Azken urteotan, batez ere pandemiaren ondoren, autokarabana-erabiltzaileen igoera ikusita, Lapuebla de Labarcan gune berria egiten ari dira, aspaldi futbol-zelaia zegoen lekuan. **13 autokarabanentzako lekua** egongo da. Bertan ura hartu, elektrizitatez hornitu eta komuneko hondakinak jasotzeko aukera egongo da, jakina. Zerbitzuokin autokarabana zaleen beharrak guztiz asetuta egongo dira, zalantzarik gabe.

Egia da gure eskualdean baditugula gune egokiak inguruko herrietan, Bastidan, Eltziegion eta Oionen kasurako, eta Lapueblakoarekin eskualdeko aparkalekuen sarea indartu egingo da, dudarik gabe.

Esan behar da gunea benetan ederki geratu dela, halere, zabaldu aurretik akats nabarmena du: argazkian ageri bezala gaztelera hutsean dago idatzita plaka eder batean nolako gunea den adierazita. Jakina denez, bi hizkuntza ofizialetan egon behar da. Ea berehalako batean konpontzen duten.



navaridas.....


Navaridas Aldarte Onez

U rtero bezala, denok espero genuen asteburua heldu da. Navaridaseko biztanleek euren izaera aldatzen dute, herria eta eskualdea ordubetez euren umorearekin entretenitzeko. Esan beharra dago jende asko asteburu hau heltzeko irrikaz egoten dela; aurten ez da desberdina izan, gerturatutako pertsonen kopuruak horixe erakutsi baitu.

Oraingoan, 20 minutuko 3 entremes izan ditugu, aktore berezi hauekin gozatu ahal izateko. Entremes bakoitzak bere gai propioa eduki du, eta ikuslea bere kontraesanetatik tiraka barre eragiteko gaitasuna izan dute. Ikusleen hitzetan, komikoez ikusleekin konektatzeko duten gaitasuna txundigarria da, izan ere, kontuan hartzekoa da herriko pertsona arruntak direla antzerkia aurrera ateratzen dutenak.

Navaridaseko erabilera anitzeko gela 3 egunez jendez lepo egon da, eta ikusleek datorren urtean zer ikusiko duten jakiteko gogoz geratu dira. Normalean, ostirala egun lasaia izaten da; aurten, aldiz, egun jendetsuena izan da, antzerkia ikusteko ia 200 lagun batu baitira. Hala ere, beste bi egunak ez dira motz gelditu; larunbatak 120 lagun inguru elkartu zituen eta igandean, berriz, 160 lagun bertaratu ziren.

Jendearen artean antzerkiak izan duen arrakasta ikusita eta kontuan hartuta zenbat lagun erakarri dituen, **ZORIONTZEA** besterik ez zaigu gelditzen **NAVARIDASTAR** hauek egiten duten urte osoko ahaleginarengatik. Txalo zaparradaz gain, albiste xume hau euren konpromisoa eta grina goratzeko izan dadila.



SAINTEANDO
AVARIDAS

28 MARZO -19:00H
29 MARZO -19:00H
30 MARZO -18:00H

SALÓN MULTIUSOS DE NAVARIDAS.
VENTA DE ENTRADAS MEDIA HORA ANTES EN EL SALÓN MULTIUSOS.
SOCIOS: 5€
NO SOCIOS: 7€

REPARTO
BASILIO BLANCO
NAGORE ETXEITA
MERCEDES ECHEITA
YOLANDA GUZMÁN
NATI ALDIZABAL
MERCEDES GANDARIAS
IRATI CAPILLA
RODOLFO GARCÍA

DIRIGIDO POR:
ANA BLANCA FERNÁNDEZ
NATXO SÁNCHEZ



Oion.....

Oion Turkanako Umeen



Amor sin Barreras Ana Bazek, Lapueblako emakume batek, sortu duen erakundea da. Hasieran, erakundeak umeei fruta ematea zuen helburu; orain, berriz, Turkanan eskola, elikagaiak, arropa, botikak, eta abar izan ditzaten daukate helburu. Izugarrizko proiektu polita egiten ari dira, eta dena guztiz gardena, zentimo bakoitzaren bidea erakusten baitute.

Oiongo udalak bigarren urtez emango dio Amor Sin Barreras erakundeari dirulaguntza, Turkanako umeen bizitza hobetzeko. Gauzak horrela, pasa den apirilaren 25ean, Oionen egon ziren, Bazterra aretoan proiektua erakusten. Oso polita izan zen, baita gogorra ere, Turkanako errealitatea ikustea ez baita batere erraza. Hala ere, pozik atera ginen, gure tantatxoaren emaitza ikusita.

Bukatzeko, **ekainaren 22an** egingo dugun egunera gonbidatu nahi zaituztegu. **“Lazos con Turkana”** eguna ospatuko dugu, eta hainbat ekintza izango dira, bai dirua lortzeko, baita Turkanako errealitatea ikusarazteko ere. Ekintza horietako bat Turkanako umeekin zuzeneko bideokonferentzia izango da.



ARABAKO ERRIOKA ERAIKITZEN





Paganoseko parkea berritzen ari dira. Txiki eta gazteentzako dagoen aisialdi gune bakarra da herrian, eta, erabileraren eta urteen poderioz, oso zaharkituta zegoen; izan ere, eraiki zutenetik txanpon gutxi inbertitu dira.

Arabako Foru Aldundiak emandako dirulaguntzari esker, zoru berria jarriko dute aspaldiko adreiluek eta hormigoiak material egoki eta modernoagoei lekua eginez.

Aizu, irakurle, ez nuke ahohandia naizenik pentsatzerik nahi, baina benetan esango dizut seme-alabak aspaldiko parkean hazten eta jolasten ikusi ditugun gurasook dezente sufritu dugula, haurren bat edo beste burua kolpatuta edota irekita noiz etorriko zen beldur, parkearen diseinua adreiluek osatutako ertzez inguratuta baitzegoen, bestek beste. Arriskutsua benetan.

Beraz, nire kasuan –eta gainerakoen kssuan– parkearen berritze lanak berandu datoz. Izan ere, gaur egun ez dago Paganosen parkean jolasteko haurrik, eta, tamalez, ez dago joera hau aldatuko den itxurarik. Gazteena 10 urtekoa da eta handik gorakoak.

Halaber, esan beharra dago parkean egiten den “bizitza” biziki murriztu dela. Gaurko haur eta gaztetxoak eskolatik kanpoko ekintzez lanpeturik bizi dira, benetako aisialdiari tarte gutxi dedikatuz. Arraroa izaten da lanegunetan neska-mutikoen ahotsak eta oihuak entzutea.

Ez dakit ondoko herrietan jaiotze-tasa nola ibiliko den, baina Paganosen geldiune luzeegia izaten ari da. Panorama honekin ez da harritzekoa berritze lanak egiten ari direnek bukatzeko presarik ez edukitzea. Zazpi hilabete daramatzagu jadanik obretan, eta erritmo honetan ez dakit udarako prest egongo den, uda pasatzera datozen hurrek aprobeitza dezaten behintzat.

Berandu edo ez, eskertzekoa da herrietan dirua inbertitzea eta berritzea pertsona eta familia gazteei erakargarri egiteko. Ikusiko dugu.



samaniego.....

Jaiak Sustrietatik Gaurdaino: Samaniegoko Ohiturak Bizirik



Herrian betidanik izan da ongietorria kalera irteteko eta elkarrekin ospatzeko giroa. Jendea elkartzeko aukera paregabeak sortzen dituzte jaiak, denbora eta espazio partekatuen bidez. Urtean zehar ospakizun eta tradizio ezberdinak mantentzen ditugu, eta gurean, inguruko herrietan berriro berpizten ari diren batzuk sekula galdu ez direla esaten dute. Adibidez, “**Mañak**” edo **Izpiliku sortak** erretzeko ohitura; Samaniegon betidanik mantendu da. Bere jatorria ez dago dokumentatua: ez dakigu izurrite baten ondoren ingurua “garbitzeko” sortu zen, edo neguko solstizioaren atarian argia erakartzeko ote zen. Argi dagoena da ez duela erlijioarekin loturarik. Antzeko kutsua du askoz zabaldutako dagoen *Santa Agedako* ospakizunak: lurra jo, esnatu eta fruituak emateko prestatzeko erritua da. Kantuaren aitzakian kuadrillak elkartzeko egun berezia izan ohi da.

Zoritxarrez, mantendu ezin izan dena **Denon Osteguna** da, beste toki batzuetan **Ostegun Gizena** izenez ezagutzen dena. Garai batean, haurrak kalera irteten ziren eskean, bertako abestia kantatuz. Aste Santuaren bueltan, *Pizkunde* Igandean, berriz, **Judasen epaiketa** ospatu da berriki. Ohitura duela 30 urtetik gora berreskuratu zen XX. mende hasieran aurkitutako agirian zetorren “sermoi” batean oinarrituta. Urtean zehar gertatutako ezbeharrak *Judas* izeneko panpin bati egotzen zaizkio, eta plazan herritarrak eta kanpotarrak bildu ohi dira parodia antzetzeko batean. Epaiketa modukoa amaitzean, panpinari su ematen zaio.

Garaiz gabilitza hurrengo hitzorduetarako

Herriko upategiek antolatzen duten **Samaniego in Wine** ekimenean beren ardoak goraiatu eta gozatzeko aukera paregabea eskaintzen dute. Ondoren, ekaineko lehen asteburuan, **Mendekoste Jaiak** ospatuko ditugu. Astelehenean bertan egiten da jaiaren unerik bereziena: Kristoren baselizara herri osoak egiten duen erromeria herrikoia. Aurten, gainera, ekainaren erdialdetik aurrera **Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideak** antolatutako **Mahaiaren Inguruan** ekimena ere izango da gure herrian.

Eta uda amaieran, **Haraneko Ama Birjinaren Jaiak** ospatuko ditugu: urtero, irailaren 7an hasi eta, astegunei erreparatu gabe, hilaren 11ra arte luzatzen dira. Jai hauetan ospatzen den

Tfiki-ffaka 2025

ohitura berezietako bat da asto bat kanpandorreraino igotzea, istorio kuriooa oinarri: herritar batek *luzerna belarra* (*medicago sativa*) –astoek eta mandoek izugarri maite dute belar hori– ikusi omen zuen kanpandorrean. Zer bururatuko eta bere astoari lepoan soka heldu, eta dorrera igotzen saiatu... Egiaren edo gezurraren artean dabilen istorioa bada ere, “*melgeroak*” (luzerna belarraren gaztelaniazko izena) bertakoen ezizena argitzeko behintzat balio dezake!



Argazkiak, Mariasun Zuñeda

viana.....

Ostiraloke, Euskara Sustatzeko Baliabide Aparta



Ostiraloke Vianako **Erentzun** Ikastolan hilabeteko azken ostiralean egiten den ekimena da, non LHko ikasleek karaoke moduko kanta kolektiboa egiten duten jolasgaraian. Bertan, ikasleek gogoko dituzten euskal abestiak aukeratu eta abesteko aukera dute. Jarduera jostagarri honen helburua euskara modu ludikoan sustatzea da.

Erentzun ikastolan jolasgaraiei beste ikuspegi bat emateko ideia sortu zen aurreko ikasturtean. Helburu horrekin, ostiralak egun berezi bihurtzeko ekintza-plana garatu zen. Plan horretan ikasleek gelan prestatutako jolasak, gorputz-hezkuntzan lantzen diren dinamikak edo beraiek proposatutako ekintzak sartzen ziren. Ideia-jasa batean, karaokeak antolatzeke proposamena atera zen. Ez zetorren hutsetik, **Euskararen Egunean** jada antzeko kanta jaialdi bat antolatzen dugu urtero. Horrela, sortu zen **Ostiraloke**, eta hilabetez hilabete hobekuntzak eta moldaketak egin zaizkio.

Ekimen honen helburu nagusia euskara eta euskal kultura modu ludikoan sustatzea da. Horrez gain, jolasgaraia dinamizatzea, ikasleen parte-hartzea bultzatzea eta denen artean abesti berriak ezagutzeko eta ikasteko aukera eskaintzea ere baditu xede. Azken finean, musika eta jolasa uztartuz, ikasleek euskaraz gozatzeko espazio bat eskaintzen du.

Ostiraloke ekimenak hasieratik arrakasta handia izan du. Ikasleek oso gustura parte hartzen dute, eta euskal musikarekiko interesa handitu da. Parte-hartzea gero eta handiagoa da, eta ikasleek abestiak aukeratu, ikasi eta abesteko prozesua motibazio handiz bizi izaten dute. Ez hori bakarrik, koreografiak ere gehitu dituzte emanalditxoari dinamismoa emateko, eta ikasle batzuk mozorrotu eta guzti egin dira, ikuskizuna are erakargarriagoa izateko.

Tfiki-ffaka 2025

Gainera, ekimen honek euskal musikaren transmisioa bermatzen lagundu du, bai abesti tradizionalak (Gabi de la Mazaren karaokeak baliatuz), bai gaur egungo taldeen abestiak (ETS, Bulego, Zetak) edo Go!azen telesailaren bertsioak landuz. Horrek erakusten du euskal musika berriak belaunaldi berrietan duen eragin positiboa.

Ostiraloke ez da bakarrik entretenimendu-jarduera bat, talde-giroa indartzeko, adierazpen artistikoa bultzatzeko eta euskararen erabilera esparru ludiko batean indartzeko tresna eraginkorra ere bada. Hori dela dela eta, zuekin partekatu nahi dugu.

Erentzun ikastolari saria

Nafarroako Gobernuak “*Diversidad fuente de riqueza /Aniztasuna aberastasun*” VIII. Eskola Lehiaketaren sariak banatu zituen, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskara departamentuko Memoria eta Bizikidetzeta Zuzendaritza Nagusiak antolatuta Iruñeko Baluartean.

“Liburutegia” izenburupean, 70 lan aurkeztu ziren, eta horietan 1.342 ikaslek hartu zuten parte. Horien artean, epaimahaiak 11 hautatu zituen.

Erentzun Ikastolako LH 5. mailako taldearen lanak “Bere osotasunean transmititzen duen mezu positibo eta eraikitzailearen saria” jaso zuen.

Hau ez da ikastolak aniztasunaren alde egindako lanagatik jasotzen duen lehenengo saria, bost urtez jarraian saritua izan baita maila batean edo bestean.

SARITUTAKO ESKUTITZA

Kaixo lagunak, zer moduz?

Nafarroako herri txiki batetik idazten dizuegu. Gure herria bitxia da, liburutegi handi bat delako. Nola?, pentsatuko duzue. Azalduko dizuegu.

Euskarazko esaera batek zera esaten du: “Zenbat buru hainbat aburu”, baina hemen honela esaten dugu, “Zenbat buru, hainbat liburu”. Zergatik? Azkenean gutako bakoitza liburu maitagarriak garelako.

Santiagoren liburua adibidez, oso dibertigarria da, katu bat du, ahizpa eta beti arazoetan sartzen da. Ekuadorretik etorri zen liburu hau.

Iratiren liburuan eskubaloia agertzen da beti: partidu bat irabazi, beste partidu bat galdu, entrenamenduak... Baina honetaz gain, liburu honek besarkadak eta kilikiak egiten ditu.

Daniel liburu baxua da, oso mugitua. Liburu honekin kotileo guztiez enteratzen gara. Berarekin “Salseoaren kluba” osatu genuen behin.

Iranzuren liburua beti irekita dago, oso barregarria da, txiste asko dakizkielako. Irakurri behar duzue!

Joneren liburuak hitz gutxi ditu, gutxi hitz egiten duelako. Oso lagun ona da. Laguntzeko eta entzuteko prest dago beti. Haserretzen bada sutan jartzen da, baina berehala pasatzen zaio.


Ikusten duzunez, gure apalategietan liburu pila daude, kolore eta gai askotakoak gainera! Konbentzitu zaitugu? Horrela bada, etor zaitez gure liburutegira. Gustura irakurriko dugu zure liburua eta zuk gurea! Ikusiko duzu zenbat abentura ditugun gordeta!

Eta zenbat abentura bizi ditzakegun elkarrekin!

Besarkada handi-handi bat, herriko liburu guztien partez!

zieko.....

Ziekokokomedia



Eltzieso, 2025eko ekainaren 6tik 8ra egingo den **Ziekokokomedia Jaialdiaren** bigarren edizioa jasotzeko prestatzen ari da. Iazko arrakastaren ondoren, aurten ere umorez, musikaz eta adin guztientzako jardueraz betetako programazioa izango da.


2024ko maiatzaren 18an eta 19an ospatu zen **Ziekokokomedia Jaialdia** estreinakoz. Ekitaldiak Eltzieso bihurtu zuen umorea eta sormena arnasten zituen agertoki biziduna. Jaialdiak eskaintza anitza eman zuen: bakarrizketak, kale antzerkia, aire libreko zinea eta adin guztientzako jarduerak. Nabarmendu ziren **Raúl Cimasen** emanaldia, jaialdiari hasiera eman ziona, eta **Jon Plazaolaren** “*Tu-Tum; Plaz!*” ikuskizuna, amaiera bikaina emanez. Horrez gain, haurrentzako tailerrak izan ziren. Eltziesgoko gaiteroen kalejirak eta **Rockalean** musika taldearen zuzeneko musika saioak lagunduta “poteo barregarria” egin zen. Umorearen, kulturaren eta bertako jendearen harreraren uztarketak arrasto sakona utzi zuen, eta jaialdia Arabako

Errioxako kultura-agendan ezinbesteko hitzordu bihurtu da.

Aurtengo edizioaren nondik norakoak Eltziesgoko web gune ofizialean argitaratuko dira. Anima zaitetze eta ez ahaztu umorez betetako asteburu honetara hurbiltzeaz!!!



Xamarren Hitzaldia, Txikia Handi Denean



Otsailaren 20an, arratsaldeko 19:30ean, Oionen, **Juan Carlos Etxegoien** (Xamar) idazlearen hitzaldia antolatu zuen **Ttiki-ttakak**. Hizlaria goizeko 11:00etarako Oionen zen. Ez omen zuen herria ezagutzen, eta, Euskal Herriko bazterrak zapaltzea gustuko duenez, goizetik izan genuen Xamar herrian. Antolatzaileok hizketaldi aberasgarrian aritu ginen harekin hitzaldi aurretik, izan euskararen ofizialtasunari buruz, izan gaur egungo euskara bizitzeko moduz eta hamaika kontu gehiago. Erraz pasatzen dira orduak Xamarrekin, asko baitu esateko, eta, benetan, asko ikasten da harekin solasean.

Hitzaldiaren ordua iritsi zen eta... bost lagun geunden aretoan. Elkarri begira, zalantzan, egoera horretan hitzaldia ematera animatuko ote zen. Hark ez zuen zalantzarik: ekitaldia egingo zuen.

Ttiki-ttakan badakigu hitzaldiak astunak egiten zaizkiola jendeari, nahiago dituela, alegia, antzerkiak, bakarrizketa umoretsuak eta abar, baina Arabar Errioxako eta Vianako euskara elkarteak sinesten du hitzaldietan. Elkarteari garrantzitsua iruditzen zaio euskal kontzientzia lantzea, geure historia ezagutaratzea, euskararen egungo arazoez jardutea, konponbideez... Hala ere, bai, bost lagun baino gehiago espero genituen hitzaldian.

Inguru hauetan euskarak egun bizi duen egoera lortzeko lan handia egin da aspalditik, urte askoan. Garai batean lan eskerga eginiko haien seme-alaba gehienek euskaraz badakite, euskara-tituluren bat ere badute askok, baina ez dute gurasoen kontzientziarik; izan ere, euskara jaso dute, ikastetxeetan gehienetan, baina euskarari eman diezaioketenaz ez dute pentsatzen, eta euskara ez dute bizi. Ttiki-ttakan uste dugu kontzientziazio alorrean lan egin

behar dela, hots, jakin behar dutela gaur egungo belaunaldi gazteek arbasoek eginiko lana zein izan den, zer dagoen eginkizun hausnartu behar dutela eta beren ekarpena egin dezaten gogoia piztu behar zaiela.

Hala bada, **“Euskal kultura ezagutzeko gakoak”** izenburupean, Xamarren hitzaldia antolatu genuen. Irakurria genion hainbat adierazpenetan haren liburuen helburua gure kultura eta herria hobeki ezagutaraztea dela, eta hizkuntzarekiko motibazioa lantzea, usadioak ulertzeko hizkuntza gakoa baita. Irakurria genion, halaber, euskara irakastea *nor-nori-nork* eta *subjuntiboa* irakastea baino zerbait gehiago dela, komunitate baten partaide sentiaraztea dela, hain zuzen. Hori guztia genuen, bada, xede hitzaldiarekin.


Xamarrek idatzi duen azken liburua *Biziaroak. Herri Kultura* du izenburu, eta hark garatzen dituen gaiak hainbat dira: haurren sortzea, haurtzaroa, gaztaroa, dantzak, etxearen transmisioa, gizarte antolamendua, mitologia, sinesmenak, erritualak, krimenak, bidegabekeriak, festak, aisialdia... eta, azkenean, heriotza.

Ordubete pasatxo iraun zuen hitzaldian aurrez aipatutako gai horiek guztiak jorratu zituen, edo, hobeto esanda, gai horiei buruzko lagin batzuk erakutsi zizkigun. Hogeia argazki erakutsi zizkigun eta hogeia istoriotxo kontatu. Emakumearen rola zein zen eta haren indar eta pisua erabakietan nolakoa zen garai bateko baserri eta etxeetan. Gizon eta emakumeen itxura nolakoa zen;

esaterako, duela 150 urteko Arratia inguruko gizonezko batzuen itxurarekin barre egin genuen, gaur egungo gaztetxeetan ikus daitekeen bezalakoxea baitzen; Baionan, emakumeek ilea hiru modutan mozten zuten, hau da, ezkongabeek modu batean, ezkonduak beste batean eta alargunek beste batean. Emakumea teila bat buruan zuela ikusi genuen baratzean lanean, dirudienez etxearen babes modu horretan sentitzen baitzuten haurraz erditu berritan. Animaliak ere izan zituen hizpide: erleen garrantzia; abereak elizara sartzen ziren kontuak; marigoringoen bitxikeriak; kukuen inguruko esaera zaharrak eta ohiturak; adibidez, saguzar edo saguzatar deitzen bazaie ere gaur egun lekuri gehienetan, badira lekuak zapo-ainara izena dutenak eta zorte onarekin lotzen dira. Gaur egun ohituta gaude alkateek agintaritzaren hartzen dutenean haien aurrean dantzariak aurrekua dantzatzeko ikustera; garai batean, ordea, alkatea zen herriaren aurrean dantza egiten zuena. Pastorek eta maskaradek zuten garrantzia azaldu zigun: gazteak heldu egin, eta herriaren aurrean hala erakusten zuten ospakizun haietan parte hartuta. Gaur egun, herri askotan egin ohi dira munduko janariarekin festak eta antzekoak, herritarrek elkar ezagutzeko asmoz; lehen ere baziren, nonbait, elkar ezagutzeko beharrak: Baxe Nafarroako hainbat herritan, herritar guztien etxeetako giltzak nahastu, eta zozketa bidez bi giltza elkartzen zituzten, bi etxe, hiru egunez elkarrekin, etxeak txandakatuz, bazkaldu eta afaltzeko. Jentilen istoriotxoak ere kontatu zizkigun. Heriotzaren aurrean ziren hainbat ohitura bitxi ere ezagutu genituen... hitzaldi bizi eta polita benetan.

Guztiak erakutsi zigun tradizioa, usadioa, ohitura eta antzeko hitz potoloen atzetik momentuko usteek agintzen dutela, modak azken batean, eta askotan urte gutxiko kontuak direla; dena aldagarria dela, alegia. Urte hasiera kanpaiekin batera mahatsa jaten hastea baino politago ez al litzateke herrietako iturrietan elkartu eta lehen kanpaiarekin ur berria edatea? *“Ur goiena, ur barrena”* aspaldiko ohitura polita dugu euskaldunok. Zergatik ez berreskuratu?

“Atzeak erakusten du aurrea nola dantza”, dio euskal esaera batek. Aspaldiko euskal herrietako ohiturak eta euskara indartzeko inguru honetan aitzindariak eginikoak ezagututa, dantzari hobeak izan gaitezke euskararen etorkizunean.



San Martin, Txikia Izan Arren, Handiena



Emakume itxurazko espátula-idoloa

Argazkia, Iñaki Varona

San Martin trikuharria **J. M. Barandiaranek** eta **D. Fernández Medranok** aurkitu zuten 1956ko apirilean Biasteritik oso gertu, Gasteizerako bide-ertzean, hain zuzen. Geroago, 1964an, indusketa-lanak hasi zituzten **Juan María Apellanizekin** batera 1964ko uztailan eta abuztuan. **21 gorpu** aurkitu zituzten eta hainbat aztarna garrantzitsu: kobrezko sastakaia, kanpai formako zeramika, txorten eta hegal puntak, hezurrezko botoiak, espatula-idoloak... Hilobiaren ondoan txabola edo mahastizaintzarako etxola txiki bat dago, Arabako Errioxako landa arkitekturako tipikoa dena, trikuharriaren tumulukoak ziren harriz egindako kupula aizunez estalia.

Gerora ere, beste arkeolo batzuek jardun dute ikerketa lanetan eta beste asko izan dira bertan trikuharriaren garrantziak erakarrita. **J. Fernández Eraso** eta **J.A. Mujika** EHUko irakasleak izan dira azkenetakoak Arabako Errioxako trikuharriak aztertzen. Erasok berak 2021eko urtarrilean Arabako Errioxako blogean ondoko gogoetak egin zituen San Martin trikuharriaren kontura: “Indusketa-lanetan aurkitutako aztarnen artean, badira ahuntz tibia-hezurrez egindako espatula-idolo modukoak (emakume itxura duen espatula-idoloa ere tarteka); horiek San Martin trikuharrian aurkitutako gainerako aztarnek baino 1.000 urte gehiago dituzte. Aipatu espatula-idoloak mila urtez zainduko ote zituzten gerora trikuharrian abandonatzeko? San Martin trikuharria aurretik egongo zen antzinagoko hilobi baten gainean eraiki ote zuten? Bertakoentzat toki sakratua edota berezia ote zen?”.

Trikuharriak bertako toponimoa jaso zuen izentzat, inguruak San Martin baitu izena. Euskaldunok ondo ezagutzen dugu gure mitologian nolako garrantzia duen “**Martin Txikik**”, izan ere, Jentilei gariaren ereintza eta burdingintzaren sekretuak “ostu” omen zizkien. Hala jasotzen zuen **José Miguel de Barandiaranek** gure Euskal Herrian aspaldi zabaldutako kondaira batean:

Tfiki-ffaka 2025

Aspaldian Muskiako koban Basajaunak bizi omen ziren. Han inguruko mendialdeko lurak erabilia, sekulako garitza biltzen omen zuten. Behealdean, ibarrean, kristauak bizi omen ziren, eta artean ez omen zuten garirik ereiten, gari-hazirik ez zeukatelako.

Behin San Martin Txiki oinetako handiak jantzita, igo omen zen Muskia mendiko kobara, eta hango gari-piloak ikusita, basajaunekin egin zuen apustu gari-meten gainetik salto egin zezakeela.

Basajaunek beren aldiko kemenean jardun omen zuten. San Martin Txiki, berriz, gari-piloen erdira erori omen zen, baita abarkak gari-alez bete ere.


Gero, handik alde egitean, San Martin Txiki bere etxera zihoala, basajaun bati bururatu omen zitzaion hark botinetan gari-haziak zeramatzala, eta hortaz aizkora txikia hartu, eta bota omen zion, baina ez zuen hura harrapatu. Kristauek ez omen zekiten garia noiz erein, baina halako batean baten batek basajaun bati aditu omen zion nola algaraz esaten zuen:

**“Ja jaaai! Balekite, hartuko lukete:
Orri irtete, arto egite.
Orri erortze, gari egite.
Eta San Lorentzotan arbi egite”.**

Oso aspaldikoa, bai horixe!

Luis Miguel Martínez-Torres EHUko geodinamika irakasleak zera zioen San Martin trikuharriaren kontura “Diario de Navarra” egunkarian 2018ko otsailean:

“Harriz egindako munduko eraikuntzarik zaharrena Turkian dago, Göbekli Tepe tenplua, hain zuzen; 11.500 urte ditu, alabaina, Araba ez da atzean geratzen. San Martin trikuharriak 6.900 urte inguru ditu, Maltako Neolitiko tenpluak (Ggantija-k, 6.000 urtekoak) baino zaharragoa, beraz. Ondoen kontserbaturik dagoen munduko harrizko eraikuntzarik zaharrenetakoa dugu San Martin, Turkiakoak bakarrik gaititua”.



Eskuineko argazkian eroritako ortostakoak goratzen 1964an (Barandiaran, Apellaniz eta Fernández Medrano)



Has oído hablar del ergativo, pero todavía no sabes cuándo utilizar la K.

ika te lo explica.

Hizkuntza ulertuz, euskara ikasi.



BIASTERI
EUSKALTEGIA
045 621 055

OION
EUSKALTEGIA
045 601 087

GASTEIZ 045 164 341 | **IRUNEA** 045 222 246
ERRIOXA 045 00 007 | **LESACA** 045 037 790
BARAHAIN 045 305 325 | **ATARRAIA** 045 332 660
DONEZTEBE 045 401 660 | **LEITZA** 045 400 770

EUSKALDUNIKATE
ERRIOXA.IKA.EUS
errioxa@ika.eus



Duela gutxi arte Topagunea zen **Taup**a izeneko erakundeak, izen eta proiektuaren zenbait aldaketaren berri emateaz gain, Euskaraldiaren laugarren edizioa aurkeztu zigun 2024ko azaroan.

Hala, bada, adierazi ziguten **Euskaraldi**aren hiru edizio geroago, hau da, 400 herri-batzorde, 8.000 entitate parte-hartzaile eta milaka ahobizi eta belarriprest geroago, eginiko ikerketek argi erakutsi dutela Euskal Herri osoan milaka eta milaka herritarrek beren hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararako jauzia eman dutela ekimen honi esker. Beraz, eraginkorra dela; alegia, euskararen erabilera altuagoa dela *Euskaraldian* parte hartu ondoren aurretik baino. Halaber, azaldu ziguten euskaraldiak erabilera-mota batzuk hedatu egin dituela; lehen hitza euskaraz egitea eta elkarrizketa elebidunei eustea, adibidez. Euskaraldiaren irakurketa eta balorazio askoz gehiago eta sakonago eskaini zizkiguten, baina ez gara horietan luzatuko.

Argi genuen herritarrok Euskararen erabileran eragiteko daukagun tresna-bide-modu masiboena dela *Euskaraldia*, eta, aurten, gainera, data-aldaketa interesgarria zekarren berekin: 4. edizioa, maiatzaren 15etik 25era izango zen. Bai ondo! Arabako Errioxak eta Vianak parte hartu nahi genuen.

Otsailean batu ginen zonaldeko herrietako zenbait lagun eta Euskaraldian izena ematea erabaki genuen. Beraz, herrietan batzordeak osatu, eta lanean hasi ginen. Laugarren edizio honetan, Arabako Errioxako herri guztiek eta Vianak izena eman dute, eta hamaika ekintza izan dira Euskaraldiaren aurretik eta bitartean.

**Euskaraldia amaituta ere, jarrai dezala
euskararen aldiak!**

Euskaraldia iruditan



Maiatzak 8, osteguna 20:30ean

ZANKARON NORRARRON BLUES

KONTZERTUA HIRUKO TABERNAN
Biaferi (Araba)

Etorri eta gozatu euskaraz!

APIRILAK 4, OSTIRALA
ARDO DASTAKETA
PAGANOSEKO GIZARTE ETXEAN, 19:30EAN

10 €
PERTSONAKO

Izena emateko:
GUARDIAKO TURISMO BULEGOAN
Izema emateko adin eguna; martxoak 31.
Izema mugatuak, gehienez 20 pertsona. Askari ibilti!



KARTELGINTZA IKASTARO

BIASTERIN

APIRILAK 9, ASTEAZKENA
19:00 PM

Andereren eskutik

Garbitas etxean
Izema emateko
093828000



EUSKARALDIA
JAI LANTZIEGON

DJ MUGI BOOGIE.

BERISO-KANTU POTEOA
Felpe Zelaiteta
Garikoitz Sarrugarte

Lantziegon Maiatzak 17an
18:00etatik aurrera

EUSKARALDIA
Elkar mugatuz kargatuz dugun

Arabako Errioxa Bizirik! plataforma Arabako Errioxan proiektatu nahi dituzten energia berriztagarrien makroproiektuei aurre egiteko eta eskualdea informatuta mantentzeko sortu da. Izan ere, Eusko jaurlaritzak aprobatu behar duen LPS definitiboak (Lurralde Plan Sektoriala) Arabako Errioxa proiektu hauek burutzeko leku egokitzat zehazten du. Honen guztiaren lehenengo pausua Labrazarako diseinatuta dagoen makroproiektuaren onarpena eta tramitazioa izan da, eta azken hilabeteotan horrek guztiak eragin ditzakeen ondorioak salatu nahi izan ditugu.



Instituzioek Labraza, Iberdrolak eta Energiaren Euskal Erakundeak eraturako Aixeindar sozietate publiko-pribatuari saldu diote dagoeneko. Burokrazia-tramite guztiak baimendu dizkiote, makroproiektu eolikoari bidea irekiz. Labrazako bizilagunentzat miseria ekologiko eta soziala sortzen dituzten 8 errotak beste batzuen onura ekonomikorako eraikitzea espero da.

Iberdrolak inolako lotsarik gabe bere kontu milioidunak argitaratzen ditu, urtez urte handituz doazenak, mendi publikoak inbadituz dirulaguntza publikoekin; faktura, berriz, guk ordaintzen jarraituko dugu.

Energia guztion beharrak asetzeko eskubide izan beharrean, gutxi batzuen irabaziak handitzeko merkantzia pribatua bihurtu da. Hori guztia ezinezkoa litzateke gobernu eta erakunde publikoek bultzatutako politika (neo)liberalistarik gabe. Horren adibide argia dugu alderdi politiko guztiek (ezker nahiz eskuin) onartu duten trantsizio energetikoaren legea. Enpresa energetikoen mesede eta beharrei erantzuten dion klase politikoa dugu, eta haien akordio zein itunek etorkizun beltz batera kondentzen gaituzte.

Kapitalismo asegaitz honek energia fosilak neurritz kanpo kontsumituz, planeta berotu eta gaur egun pairatzen dugun klima eta ingurumen-krisia eragin ditu. Oraindik ere, kapitalismo berdeak gizateria salbatuko duela sinestarazi nahi digute, baina argi daukagu gakoa ez dagoela kolorean.

Euskal Autonomi Erkidego osoan, goi tentsioko lineak, eguzki-parkeak eta parke-eolikoak eraiki nahi dituzte energia berriztagarrien Lurralde Plangintza Sektorialaren babesean.

Arabako Errioxa Bizirik plataforma ez dago energia berriztagarrien aurka. Deskarbonizazioa ezinbestekoa da planeta eta bere biodibertsitatea babestu nahi baditugu. Alabaina, uste dugu trantsizio energetikoa biztanleriaren beharrei erantzuteko antolatu behar dela, eta ez enpresa handien irabaziak handitzeko logika merkantilistaren arabera, eta logika hori da salatu nahi duguna.

Eredu politiko, ekonomiko eta sozial suntsitzaille hauek gainditzea beharrezkoa da. Horregatik, ezinbestekoa da instituzio publikoetatik haratago antolatzea, hauek baitira eskaintzailerik onenari geure lurra saltzen dizkietenak.



Arabako Errioxako Ingurumen-Teknikaria

AITOR SENAR ENEKOTEGI



Berrogei urte betetzear dagoela, 2009tik ari da lanean Arabako Errioxan. Aitor Senar Enekotegi 3 urtetik 17 urte bete arte Olabide ikastolan hezitako gasteiztarra da. Handik EHUr igaro zen, Ingurumen Zientziako gradua burutzeko. Euskal Herriko Unibertsitate Publikoaren hirugarren promoziokoa da.

Gure eskualdean Laguardia, Leza, Navaridas, Moreda Araba eta Samaniegoko udaletan ingurumen teknikari hasi zen.

2016an, Arabako Errioxako Kuadrillak sortutako ingurumen zerbitzuan sartu zen.

Lanpostu horretatik, eskualdeko udalekin, Arabako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Aranzadi zientzia elkartearekin eta Arabako Errioxako ikastetxeekin lankidetzan aritu da

ingurumenaren babesaren antolamenduan eta informazioaren zabalkundeetan.


Sail honetan lantzen dituen proiektu-sorta zabalaren barruan, proiektu baten inguruan galdetu diogu: "Hondakin organikoen etxez etxeko bilketa" izenekoa. Arabako Errioxako Kuadrilla aitzindaria izan dela Arabako lurretan esan digu. Orain arte Lantziego, Kripan eta Eltziegoren egon den moduan, orain Elburgon eta Lautadan ere beharrezko ikusten den ibilbide hau hasi du. Arabako Errioxako gainerako herrietara zabaltzea da eskualdeak proposatzen duen erronka.

Aipatutako proiektua Estaturako erreferentziatzakoa dela argi dago, eta hainbat autonomia erkidegotako ingurumen-arduradunek bisita ugari egin dizkigute.

Tematitzat du bere burua, eta barre artean komentatzen du Ainhoa Iñiguez Soto lankidearekin.

Gaur egun, hemen finkatu da, eta Arabako Errioxako herri hauekin izan zituen lehenengo harremanak futbolaren bidez izan zituela dio: bere ikastolako taldean jokatzeko zuenean, Samaniego eta Laguardiara lehiatzera etortzen zen.

Azkenik, Aitorren izaera islatzen duen xehetasunik bada: duela gutxi ibilgailua aldatu zuen. Aurreko ibilgailuarekin Arabako Errioxa eta Gasteiz artean milaka kilometro egin ostean, bateriadun ibilgailu elektrikoa erosi du.





Pasa den abenduaren 14an, Euskaltzaleen Topagunea desagertu egin zen. Dolurik ez genuen pasatu, ordea, haren orde **TAUPA** euskaltzaleen mugimendua sortu baitzen, garai berrietara egokituko den herri proiektu ilusionagarria, euskararen erabilera eta euskaltzaletasuna sustatuko dituen.

Inportantea da, ordea, azken mugimenduak nondik datozen ondo azaltzea, ez baita urratsik ausaz eman. 2022. urtearen amaieran **“Batera Jauzi laborategia”** izeneko hausnarketa prozesu luze bati ekin genion. Bertan oso jatorri, sektore eta testuinguru ezberdinetako ia 200 lagunek parte hartu zuten. Helburu bikoitza jarri genion prozesuari: euskararen erabilera igo dadin beharrezko baldintzak identifikatzea, eta bide horretan, hurrengo hamarkadarako Topagunearen lan-ildoak definitzea.

Ibilbide horren amaieran, etxerako lan dezente bakarrik ez, ondorio argi bat ere argi atera genuen: geure burua

berrasmatzeko garaia da! Euskararen erabilera handitu nahi dugu eta herri mugimendu sendo baten bidez lortuko dugula sinetsita gaude. Horra erronka, eta hona bidea: euskara elkartearen topagunea izatetik euskaltzaleen mugimendu izatera salto egin nahi dugu, herrietako oinarri sozialaren indarrarekin, Topagunearen esperientziarekin eta eraldaketarako grinarekin.

Eta nola? Euskal Herriko gizartearekin bat eginez, euskaldunon komunitatetik eta komunitatearentzat –herrigintzatik, jendearengandik hurbil– ekinez, baina betiere gure inguruan errotuz, identitate eta euskaldun izateko molde oro aitortuz eta euskara benetako harrera hizkuntza bilakatuz.

Ez, ez gaude erronka faltan, baina zorioneko gaude: ez gaude bakarrik. Euskal Herri osoko euskara elkarteek –Ttiki-Ttaka, esate baterako– Topagunea mamitu dute azken 30 urteotan. Taupan ez da ezberdina izango: mugimenduaren iparra dira. Oraingoan Euskal Herri osoko herritar euskaltzaleei ere egiten dizuegu deia, ordea.

Mugimendura batzen diren euskaltzaleek euskararen alde ekarpena egiteko modu berriak izango dituzte, norbere aukera eta nahietara ahalik eta hobekien egokituko direnak. Tokiko euskara elkarteekin (Ttiki-Ttaka, kasurako), norbere kabuz, nazio mailako euskaltzale mugimendu indartsuago eta zabalago baten kide izango dira, herri proiektu ilusionagarri baten aldeko eragile.

Euskarak mugimendua behar du. Eta gu mugitzera goaz.

<https://taupamugimendua.eus/zer-egin-dezakezu-zuk/>

ITXASO COMPAÑÓN ARRIETA



Pertsona ezaguna zara Lantziegon eta Arabako Errioxan, baina... Nor da Ixaso Compañón Arrieta?

Lantziegoko neska herrikoa naiz, ama bihurtua. Abesti batek dioen bezala, “amaren odola eta aitaren azala” daramatzat. 1984ko otsailaren 14an sortu ninduten Lurdesek eta Felixek. Betidanik bizi izan naiz Lantziegon, eta noizean behin Azpeitira joaten ginen amaren familia bisitatzerara. Ama andereño izan zen, eta aita, “El Mozo” ezizenekoaren semea, betidanik izan da nekazari eta ardogile.

Lantziegoko eskolan hasi nintzen ikasten, eta gero Lapueblara joan nintzen DBH eta Batxilergoa egitera. Batxilergoa amaitutakoan, ez neukan oso argi zer ikasi nahi nuen, baina banekien unibertsitatera ez nintzela joango: oso pertsona aktiboa naiz eta, nire izaera kontuan hartuta, goimailako ziklo bat egitea egokiena zela pentsatu nuen.

Andoainen ikus-entzunezko errealizazioa ikasi nuen, eta Bartzelonara joan nintzen espezializatzerara, zinema mundua gustuko nuelako. Filmazioetan parte hartu eta postprodukzioan aritu nintzen.

Bartzelonan ikasketak amaitu eta gutxira, aita minbiziaren ondorioz hil zen. Ama bost urte lehenago galdu nuen auto istripu batean. 20 urte dira amaren umezurtz geratu nintzela, eta 15 urte dira aitarena. Atzo gertatu balitz bezala sentitzen dut oraindik.

Bizitzan gertatu zaidan ezbehar handiena aldi berean onena izan da, bada halakorik esaterik, gaur nagoen tokira ekarri ninduelako. Zinemari utzi, eta aitaren upategiarekin saiakera egitea erabaki nuen. Ez nekien ia ezer, eta arratsalde formakuntza hartzen hasi nintzen, upategiaren, mahastien eta ardoaren mundua ezagutzeko. Horregatik, ikastaroetan, elkarteetan eta sindikatuetan parte hartzen hasi nintzen.

Hasieran **UAGA**ko bileretan parte hartzen nuen, eta botilatzen hasi nintzenean, **ABRA** elkartearen sartu nintzen. Urteak eman ditut Rioja Kontseilu Arautzaileko bileretan, gure sektorea eta eskualdea defendatzen. Gaur egun, oraindik horretan jarraitzen dut; **ABRA**ko presidentea naiz.

Ttiki-Ttaka Elkartearen aldizkaria izanik, zein izan da euskararekin izan duzun harremana? Zure biografia linguistikoa?

Txikitatik etxean euskaraz hitz egin dugunez, harreman estua izan dut hizkuntzarekin. Azpeitira joatea eta bertan familiarekin euskaraz aritzea ohikoa zen. Gaur egun ere, gustura hitz egiten dugu lagunartean, seme-alabekin eta baita herriko gaztetxoekin ere.

Lantziegon eta Arabako Errioxan, nola baloratzen duzu euskararen egoera? Eta zein erronka ikusten dituzu etorkizunera begira?

Lehen baino hobeto gaudela esango nuke, nahiz eta ez dudan datu nahikorik. Hala ere, asko dago egiteko. Beste zonalde batzuetan normaltzat jotzen diren gauzak

hemen falta dira oraindik. Esaterako, bide-seinaleak leku askotan gaztelaniaz baino ez dira azaltzen.

Gaur egun ABRAko presidentea zara. Nola ikusten duzu gure eskualdeko egoera nekazaritzan eta upategietan etorkizunera begira?

Egoera ez da ona; ez dira garai onak. Badakigu gure krisiaren irtenbidea bereiztean datzala. Horregatik, sarritan ibiltzen gara desberdintasunaren aldeko proiektuetan lanean. Garrantzitsua da kontsumitzaileak erraz identifikatu ahal izatea zer erosten duen, eta gutxienez jakitea zein upategititik datorren ardoa, erabakiak kontzienteki hartzeko.

Baina egiten ditugun ahaleginak ez dira behar bezala lagunduta izaten, eta askotan bakarrik sentitzen gara. Upategi txikiek eta familiarrek mantentzen dute eskualdea bizirik neurri handi batean. Upategiak ixten badira, herriak hilko dira. Konponbiderik jartzen ez badiogu, eskualdea “ardoaren Port Aventura” bihurtuko da, turismoaren menpe eta upategi handien agindupean, jauntxo betetik.

Badakigu ABRAk aholkularitza baten bidez euskara upategietan txertatzeko proiektua jarri duela martxan. Zertan datza?

“Euskara lekuak” izena du proiektuak. Iaztik hasi ziren hainbat upategi euskarari presentzia handiagoa ematen, bai webguneetan, promozioetan zein bisitetan. Lana poliki-poliki doa, baina oso interesgarria da, eta aholkularitzaren laguntzarekin erraztasun handiagoz ari gara euskararen presentzia indartzen.

Nola ikusten duzu euskararen presentzia gero eta indartsuago dagoen

enoturismoaren esparruan? Ikusten al diozu lekurik?

Bai, nola ez! Euskara eskaintzea gehigarri positiboa da gure enpresentzat. Gure kultura baloratu eta maitatzea ederra da, baina erabiltzean hasten da benetako zentzua ematen hizkuntzari. Euskaraz bisitak normalizatzea izan beharko litzateke gure hurrengo helburua.



Zer esan nahiko zenieke gure aldizkariaren irakurleei? Aurreko galderetan galdetu ez dizugun hori-edo...

Lotsa kendu behar diogu euskaldun sentitzeari eta euskaraz hitz egiteari. Harrotasunez egin beharko genuke, muga batean bizi garela jakinda, gure hizkuntza eta ikurrina aldarrikatuz. Uste dut ikusgarritasuna landu beharko genukeela: zenbat biribilgune ikusten ditugu ikurrinarekin Gipuzkoan edo Bizkaian? Zenbat kartel euskaraz?

Gu, hemen, iparralderago bizi direnak baino harrotasun handiagoz bizi beharko ginatke. Baina badirudi muga honetan euskara eta nortasuna aldarrikatzea erabaki politiko bat balitz bezala ikusten dela, eta ez da hala: gure izaeraz harro egotea besterik ez da.

MAITANE LARRAYOZ MARTÍNEZ



MAITANEREN ESKUBALOIA, EUSKARA ETA BIHOTZARI, OIONESAKO ATEAK ZABALIK!

Zein izan da zure ibilbidea Oionera heldu aurretik?

Malkaitz Eskubaloian hasi nintzen 9 urte nituela. 13 urte geroago, 22 urterekin, *Beti-Onakera* joan nintzen zilarrezko mailan jolastera. Hiru urte pasa nituen bertan eta Ohorezko Mailara igo ginenean Ciudad Realeko Pozuelora joan nintzen. Bertan urtebete pasa nuen soilik eta Errioxara etorri nintzen.

Zer egiten du nafarroako neska batek OIONESAKO gaztetxoan entrenatzaile moduan?

Sporting La Riojan jokutzen dut, eta honek ez du harrobirik Logroñon. Hortaz, Oiongo eta Vianako eskubaloit taldeekin hitzarmenak sinatu zituen eta goi taldeko jokalaria hauek entrenatzeko aukera ematen digute.

Maila profesionalen lehiatzen jarraitzeko hainbat aukera zenituen... Zerk bultzatu zintuen zauden taldea (zein?) aukeratzera?

Sporting La Riojara etxetik gertu egoteko etorri nintzen. Ciudad Realen urtebete pasa bainuen, eta familia gutxitan ikusten nuen. Hortaz, ordubetera bizitzeko aukera izan bezain pronto, aprobetxatu eta Errioxara etorri nintzen.

Argi izan zenuen hasieratik zure jokalaria lana eta entrenatzaile lana uztartu nahi zenituela?

Bai. Egon naizen klub guztietan txikitxoak entrenatu ditut. Pasaden urtean ez nuen erabaki nire lehendabiziko urtea izatearren, ez bainekien zer moduz moldatuko nintzen taldera, ezta zenbat denbora libre edukiko nuen ere. Dena den, aurten halako zalantzarik ez neukanez, berriz entrenatzea erabaki dut.

Zer garrantzi izan zuen euskarak erabaki horretan?

Entrenatzea erabakita neukan, euskaraz zein erdaraz. Hala ere, *Sporting La Riojan* jokatzuz Vianan edo Oionen entrenatzeko aukera nuen, eta Oionera etortzea eskatu nuen euskaraz entrenatu ahal izateko.

Nolakoa da euskararen eta gaztelaniaren arteko bizikidetzak klubean?

Euskara ez da erabiltzen. Nahiz eta ume gehienek jakin; beraien artean gaztelaraz hitz egiten dute.

Zailtasunik izan duzu txikiekin edo taldeko beste pertsona batzuekin euskara erabiltzeko?

Orokorrean ez. Egia da guztiek ez dutela euskara ikasten, bai Euskadikoak ez izateagatik, bai Errioxan ikasteagatik, baina hori ez da arazo. Azken finean, hori gerta zitekeela nekien, eta nire betebeharra

guztiek eskubaloiaz disfrutatzea da, hizkuntzak berezko garrantzirik hartu gabe.

Nola moldatzen zara norbaitek euskaraz esaten duzuna ulertzen ez duenean?

Hitza mimika egiten dudan bitartean errepikatzen diet. Euskara dakitenekin soilik hitz egiten dut euskaraz, eta hitz baten bat ulertzen ez badute, mimikarekin ekintza eta hitza erlazionatzen saiatzen naiz. Azken finean, bestelako hizkuntzak ikasi ditudanean hitz berriak ikasteko modurik hoberena iruditu zait beti, hots, gaztelerara hitza itzuliz erraz ahazten dela uste dut.

Hartu al duzu hizkuntzarekin lotutako ezusteko erabakirik hilabete hauetan?

Bai. Oionen gutxi daraman Marokoko haur bat hasi da eskubaloian, eta nahiz eta euskara gutxi jakin, oso polita iruditzen zait hitz egiten saiatzen denean. Berria da herrian, eta bi hizkuntza berri ikasteko gai izan da. Arabiarra ikasi nahiko nuke berarekin hobe komunikatzeko, ahaleginak aldi bietatik direla ikus dezan.

Zein leku du euskarak zure eguneroko bizitzan?

Errioxan eguneroko bizitzan ez da erraza euskara erabiltzea. Zorionez, *Gaztea* irratia entzun dezaket, eta txikiak entrenatuz hitz egiteko aukera ere badut.

Dena den, lagunekin *Whatsapen* bidez hitz egiten dut, eta Logroñon espero baino euskaldun gehiagorekin topatu naiz.

Nolakoa izan da zure harremana euskararekin txikitatik gaurdaino?

Asko aldatu da urteetan zehar. Beti maite izan dut euskara, baina nire etxean ez zen hitz egiten, eta lagunaren artean ez genuen ohiturarik, nahiz eta ikastolan euskara sustatzeko makina bat ahalegin egin izana.

Euskara nire neba-arrebekin hitz egiten nuen soilik, norbaitek guri ez ulertzea nahi genuenean (oporretan, gurasoekin eta abarrekin).

Euskararekiko harremana 22 urte nituela aldatu zen. Euskara titulua lortu nahi nuen, eta egunerokoan erabiltzen hasi nintzen: lagunaren artean, familiarekin... Hasieran, nahiz eta ikasketa guztiak euskaraz egin izana, oso traketsa nintzen, baina pixkanaka-pixkanaka erraztasun handiagoz erabiltzeko gai izan naiz, eta azken urteotan euskarak balio izan dit hainbat lekutan lan egiteko.

Orain egunerokoan ahal dudan gehienetan erabiltzen dut.

Nahiko al zenuke haur gehiagok kirola bezalako guneetan ere erabiltzea?

Bai haurrek, bai helduek. Euskara esparru guztietan ikusi nahiko nuke.

Zure ustez, zer ekarpen egiten dio euskarak OIONESARI hizkuntzaz haratago?

Txikiengan ilusioa ikusten dut euskaraz hitz egiten didatenean. Suposatzen dut adinagatik izango dela, eta nerabezaroan aldatuko direla.

Zein da euskararekin lotutako zure lehen oroitzapena?

Ez dut berezko oroitzapenik; azken batean betidanik inguratu nau euskarak. Gure amaren familia euskalduna da, nahiz eta gehiengoek ez hitz egin. Askotan erabili dituzte euskal hitzak gure amonak hala esaten zituelako. Amaren partetik lehengusu-lehengusina guztiok hitz egiten dugu euskaraz amonaren omenez.

Euskal musikarik entzuten al duzu? Zein?

Jakina! Entzuten dudana musika gehiena euskal musika da, *Gaztea* Irratia entzuten baitut. Gehien gustatzen zaidan taldea *ZETAK* da, eta *ETS*ren azkeneko kontzertura joateko aukera ere izan nuen.

Dena den, horietaz aparte edozein euskal musikari entzutea oso gogoko dut.

Zer sentitzen duzu kalean, etxean edo abesti batean euskara entzuten duzunean?

Normalean ez dit atentziorik ematen. Azken finean, zergatik ez?

Tira, ETSren kontzertuaren aurreko festan amarekin nengoela, amonaz hitz egin genuen. Halako euskal kulturaren ospakizunik ikusi ez izana pena zela zeritzon amak. Amona euskaldun zaharra zen eta Iruñean bizi zen. Jende askok barre egiten zion gaztelania trakets hitz egiteagatik.

Hunkitzen zaitu euskaraz adierazpen edo soinuren batek? Zergatik?

Euskal mitologiarekiko harremanak dituzten hitzak biziki gustatzen zaizkit, hala nola, *ortzimuga* edo *ortotsa*.

Euskal kultura zaharraren arrastoak ditut, eta bereziki zaindu behar dira, gal ez daitezen.

Euskarak zure bizitzan leku berezia zuela noiz konturatu zinen?

Betidanik. Nire kulturaz arro nago; ez soilik euskalduna izateagatik, baizik eta gurasoek hezitako kultur nahasketarengatik. Garai zakarreko giroan bizi izandako sentsibiltate handiko pertsonak ziren, eta maitasunean eta barkamenean hezi gintuzten. Euskara heziketa horren zutabeetako bat izan zen, eta hil arte zainduko dut.

Zertarako balio izan dizu euskarak?

Praktikan, bestelako hizkuntzak errazago ikasteko, alemana, kasurako, eta lana aurkitzeko.

Bestalde, hain praktikoak ez diren arloetan euskal kultura ikasteko atea izan dela uste dut. Horrek jatorri ezberdinetako kulturei burua irekitzen digula uste dut.

Ba al dago euskaraz bakarrik adieraz dezakezun (edo hobeto entzuten den) zerbait?

Aspaldi ez, baina batxilergoa amaitutakoan euskaraz banekizkien hitz asko zeuden matematika arloan edota geografian.

Esaterako, gehiketa, kenketa, berreketa, multiplo komun txikiena (MKT), Hungaria, Danimarka eta abar.

Egun, nire neba- arrebekin, zein lagunekin, ikasketen arloaz hitz egiteko primerako euskañolean aritzen gara.

Beste hizkuntzek ematen ez dizun zer ematen dizu euskarak?

Nire arbasoekiko harremana. Dakigunez, gure familiak 300 urte baino gehiago daramatza Nafarroan, eta alde bietatik (ama eta aitaren partetik) ailegatu zaigu euskara oraingo belaunaldira.

Euskararekiko benetako lotura sentitzen dut.

Euskarari esker bizi izan duzu une ahaztezinik?

Ez dago momentu zehatzik, baina festan nagoela euskaraz aritzen den askorekin topatzen naiz, eta momentu ikaragarri barregarriak dira.

Festan nagoela euskaraz egiten duen koadrila batekin topo egiten badut, eguna ahal dudan gustuen pasatzen dut.

Zer irudi datorkizu burura "euskara eta zoriona" pentsatzen baduzu?

Familia.

Zer esango zenioke euskara ikasi ala ez zalantzan dagoen norbaiti?

Ikasi dezala. Ahalik eta hizkuntza gehien, gero eta hobe, gure unibertsoa ulertzeko era handitzen baitigu ezagutzak; bestelako errealitateak aurkezten dizkigu.

Zer edo zer berri ikasi ahal den bakoitzean, aukera aprobe txatu behar da.

Nork inspiratzen zaitu euskararekin duzun harremanean?

Amak, nahiz eta hitz egitea kostatu, beti *belarriprest* egoten da, eta ahal duen bakoitzean saiatzen da. Nik uste lotsarik ez balu, gehiagotan elkarrekin hitz egingo genukeela euskaraz.

Ttiki-ttaka 2025

Nolako harrera egin dizute Arabako Errioxan?

Oso ona. Oso gustura nago klubean.

Arabako Errioxa euskalduna da?

Jakina. Agian euskara ez da asko entzuten, baina euskaldun izatea kulturaren arabera da. Arabako Errioxak euskal kultura dauka, nahiz eta euskarak erabilera esparruak galdu izana.

Hemen zu luzaroan geratzeko aukerarik al da?

Sporting La Riojan jokatzen dudan bitartean, Oionen entrenatzen jarraitu nahiko nuke, klubak nahi badu eta ordutegi arazorik ez badut, jakina. Momentuz urtebetez geratzeko naizela ziurtatu dezaket.

Zein amets edo erronka bete nahiko zenuke klubari eta eskualde honi lotuta jarraitzen duzun bitartean?

Entrenatzen ditugun neska eta mutilak eskubaloiaz maitemintzea, kirolaren aberastasuna ikastea (talde lana,

errespetua, diziiplina...) eta, ahal bada, etorkizunean goi mailan jokatzeko gai izango diren jokalaririk lortzea.



Aurtengo denboraldiaren balantzea egitean, OIONESA n zure beste taldean pozik al zaude?

Bai. Nire helburua eskubaloiaz disfrutatzea izan baita beti, eta ditugun txikitxoekin oso zaila da ez lortzea. Oso jarrera ona daukate, eta ikasi nahi dutela nabari zaie.

ZURE HITZENGATIK ESKERRAK EMATEAZ GAIN, ZURE ETORKIZUNERAKO ONENA OPA DIZUGU. GORA ZU ETA GORA OIONESA ESKUBALOIA !!!

Lantziego Ikastola



ESKOLA PUBLIKOA
Eskola txikiak bizirik, euskara susfuz

denborapasak

hizki-zopa




Sentimenduak

A	Q	D	C	H	H	M	D	Z	H	I	Y	B	X
Q	M	E	Q	B	X	A	F	Z	Q	V	U	X	E
O	P	I	K	A	B	D	S	Z	K	I	C	W	L
P	A	D	T	W	R	D	Y	E	A	G	C	N	A
O	L	E	V	R	G	Y	N	X	R	H	Y	I	S
Z	A	Q	H	P	I	O	B	K	M	R	H	R	A
T	I	T	R	I	S	T	U	R	A	I	E	Q	I
A	T	L	D	X	P	U	P	V	G	R	K	A	T
S	A	U	O	J	Q	U	I	N	X	Z	C	X	A
U	S	P	E	T	F	G	O	A	F	W	G	R	S
N	U	Q	P	P	S	C	F	Z	I	M	R	G	U
A	N	B	O	Q	W	A	R	K	E	H	Q	Z	N
A	A	V	Y	U	E	Q	R	A	W	U	P	J	A
F	L	U	B	E	L	D	U	R	R	A	I	G	H

- | | |
|------------|-------------|
| Alaitasuna | Beldurra |
| Haserrea | Lasaitasuna |
| Lotsa | Nazka |
| Poztasuna | Tristura |


hieroglifikoak



hitz gurutzatuak

Gelako objektuak

Zenbat gauza ezberdin ditugun gela barruan!



esker eskuin

4. Gure liburuak eta jostailu ezberdinak gordetzen ditugun tokia. Zer da?
5. Forma ezberdinak egiteko erabiltzen dugun material biguna. Zer da?
6. Bertan lan egiten dugu. Zer da?
8. Idazteko erabiltzen dugu. Zer da?
10. Objektu hauek marrazkiak egiteko erabiltzen ditugu. Zer dira?

goitik behera

1. Bertatik argia sartzen da. Zer da?
2. Jolasteko erabiltzen ditugun objektuak. Zer dira?
3. Irakasleak erabiltzen du ariketa ezberdinak azaltzeko. Zer da?
4. Papera edo kartulina mozteko erabiltzen ditugu. Zer dira?
7. Bertatik ikasgelara sartzen gara. Zer da?
9. Bertan esertzen gara. Zer da?



www.sanbizeiteikastola.eus

Tfiki-tfaka 2025



Tfiki-ffaka 2025



Eskerrik asko Tfiki-ffakakideok!!! Izango gara!!!

t tiki
taka



euskaldunon elkarteak

*Bazkide izan nahi baduzu, ondoko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera. Kuotari dagokionez, **20 euro** dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri.*

Egin zaitez bazkide!

Abizenak: _____ Izena: _____

Jaioteguna: _____ Helbidea: _____

Herria: _____ Pta. Kodea: _____ Tfnoa: _____

E-posta: _____

IBAN eta Kontu korrontea: _____